

Asisko gutuna

2024ko martxoaren 1. printzipioa. Egutegiko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 185. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

"Sinestuntzat al duzu zeure burua?" Inkesta soziologikoetan egiten den galderetako bat da. Eta erantzuna ia automatikoa izaten da: "bai" edo "ez". Hala ere, galderak tratamendu pertsonalagoa merezi du.

Gogoetarako gaia

Sinesten al duzu?

Fededuna izatea iritzi kontua balitz, erantzuna haxe litzateke: "Nik uste dut badela Jainkoa" edo "ez dela". Baina badakigu fededuna izatea pentsatzeko modu bat baino gehiago izateko modu bat dela (pentsamendua ere barne duela-rik). Fededuna izan naiz beti? Umetan bataiatu ninduten eta kristau ospakizunetan parte hartzen dut. Datu interesgarriak dira, eta hala ere, ez dute Jainkoarengan sinesten ote dudaren galderaren muina ukitzen. Izan ere, egia esan, ez dut beti bizi ospatzen, esaten, proposatzen dudana. Egia da, halaber, bizitzan zehar ez ditudala gauza horiek modu berean bizi izan, nire historiaren eta zirkunstantzien unearen arabera baizik. Beraz, fededuna naizen ala ez galdetzeak nire existentziaren sakonean eragin handiagoa du.

Ez hori bakarrik; era berean, sumatzen dut fededuna izatea ez dela behin betiko eskuratutako zerbaite, ezta eskura dezakedan jabetza bat ere,

baizik eta ibilbide bat dela bere gora-beherekin, joan-etorriekin, argi-ilunen artean bezala. Gainera, hainbat osagai ditu, eta batzuetan kontra-koak: ziurtasunak eta zalantzak, galderak eta erantzunak, oroitzapenak eta ahanzturak, lasaitasun garaiak eta denbora nahasiak...

Gure fedearen erreferentea Ebanjelioa da, Nazaretoko Jesus. Jesusi jarraitzen ikasi zuten lehen ikasleen oroitzapenak ditugu. Beste erreferente batzuk ere baditugu, hala nola santuak, fede bidean izan dituzten gorabeherak kontatzen dizkigutenak. Eta baditugu gaurko senide anai-arrebak ere, Jainkoarekiko harreman hau modu guztiz pertsonalean bizitzen ari direnak.

Eta, batez ere, gizon haren hitzak ditugu Jesusen galderaren aurrean: "—Sinesten duzu? —Sinesten dut, baina lagundu sinesgabe honi". Izan ere, fedea, izan edo ez izan aurretik, Jainkoaren errukiaz fidatzea da.

Ebanjelioko pasartea: Jn 20,24-29

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Elkartu zirenean, beste ikasleek esan zioten: «—Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «—Haren eskuetan iltzeen seinalea ikusten ez badut, eta nire atzamarra iltze-zuloetan eta nire eskua haren saiheits-zuloan sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko». Zortzi egunen buruan, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere bertan zen. Ateak itxirik zeuden arren, sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei». Gero, esan zion Tomasi: «—Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saiheits-zuloan. Eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «—Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan zion: «—Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Frantziskotar espiritualtasuna

Gizadiaren arerioak hori ikusirik, hartu berria zuen bide onetik aldentzen saiatzen zen, Frantziskori beldurra eta ikara sentiaraziz. Bazen Asisen itxuragabeko emakume konkordun bat, eta deabruak, Jainkoaren gizonari agertuz, emakume hura ekartzen zion gogora, eta mehatxu egiten zion, emakume haren konkorra erantsiko ziola berari, hartutako asmotik atzera egiten ez bazuen. Baina Kristoren zaldun adoretzuak, deabruaren mehatxuak arbuiatuz, koba barruan otoitz egiten zuen debozioz, Jainkoak bidean gida zezala eskatuz.

Oinaze handiak eta larritasuna jasaten zituen, eta atsedunik ere ezin zuen hartu, bere asmoa praktikan bete ikusi arte. Etengabeko burutapen hauen erasoek gogorki kezkatzen zuten. Hala ere, jainkozko suak barrua kiskaltzen zion, eta ezin zuen kanporantz ezkutatu barruko sugar hura. Damu zuen hain larriki bekatu egina, eta ez zioten atseginik ematen ez lehengo ez oraingo gaitzek; hala ere, oraindik ez zuen hartu etorkizunean leial iraungo zuen ziurtasunik. Horregatik, kobatik irten eta lagunarengana joaten zenean, beste gizaseme bar zirudien. (HLaLe 12).

Otoitza

Jauna, sinesten dut, Zugan sinetsi nahi dut.
Jauna, nire fedea garbia izan dadila, zalantzarik gabea,
eta nire pentsamenduan sar dadila...

Jauna, nire fedea aske izan dadila, [...]
horrek dakartzan uko egite eta arriskuak onar ditzala...
Zugan sinesten dut, Jauna.

Jauna, egizu nire fedea egiazkoa izan dadila,
kanpoko frogen kongruentziagatik
eta Espiritu Santuaren barne-lekukotzagatik...

Jauna, egizu nire fedea indartsua izan dadila,
ez dadila gure bizitza betetzen duten
arazo ugarien gaitzespenen beldur izan,
ez dadila eztabaida egiten dioten
edo inpugnatu edo baztertu edo
ukatu egiten dutenaren ezbeharren beldur izan.

Jauna, egizu nire fedea pozgarria izan dadila
eta nire izpirituari bakea eta poza eman diezazkiola,
eta Jainkoarekin otoitz egiteko
eta gizonekin hitz egiteko gai izan dadila.
Amen.

Gutuneko azken hitzak

Gertatzen dena gertatzen dela, ni beti fidatzen naiz Jainkoaz. Garai zailtan fio naiz. Poztasun garaietan konfiantza eta esker ona diot. (anonimoa)

2024ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 21, 33-43.45-46	8 Mk 12 28-34	15 Jn 7,1-2.10.25-30	22 Jn 10,31-42	29 Jn 18,1-19,42
2 Lk 15, 1-3.11-24a	9 Lk 18,9-14	16 Jn 7, 40-53	23 Jn 11,45-57	30 Mk 16,1-7
3 Jn 2, 13-25	10 Jn 3,14-21	17 Jn 12, 20-33	24 Mk 15, 1-38	31 Jn 20,1-9
4 Lk 4, 24-30	11 Jn 4, 43-54	18 Jn 8,1-11	25 Jn 12,1-11	
5 Mt 18,21-35	12 Jn 5,1-3,5-16	19 Mt 1,16.18-21.24a	26 Jn 13,21-33.36-38	
6 Mt 5,17-19	13 Jn 5,17-30	20 Jn 8, 31-42	27 Mt 26, 14-25	
7 Lk 11, 14-23	14 Jn 5, 31-47	21 Jn 8,51-59	28 Jn 13, 1-15	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Martxoko otoitza hilaren
21ean izango da
(azken osteguna Ostegun
Santua delako).